

OSASUNA ETA HAUR ESKOLA

Hezkuntza-proiektuak funtsezkotzat jotzen du ohitura osasuntsuetan heztea. Familiaren laguntza funtsezkoa da hori lortzeko.

Ikasturtean zehar:

- Hezitzaileari haurren osasun-egoeran izandako aldaketen berri ematea, bai haurtzaindegira joaten bada, bai bajaran badago.
- **SUKARRA: >37,4 sukarra** edo gaixotasun kutsakorrek dituzten haurrak ezin dira Haur Eskolan egon.
(Eskolara 24 ordu sintomarik gabe eman ondoren joan ahal izango da).

GARBITASUN-ARAUAK: Higiene egokiak laguntzen du orokorrean osasun hobea izaten.

- **Gorputz-higienea:** adingabeak maiztasunez bainatzea, ongi lehortzea eta, behar izanez gero, krema hidratatzailea ematea.
- **Azazkalak moztu:** Azazkaletan bakterioak egon daitezke. Gainera, urradurek eragindako lesioak prebenitzen ditu.
- **Ahoko higienea:** Aho-barrunbea edo hortzak eskuila eta pasta egokiarekin garbitzea gomendatzen da.
- **Belarriaren higienea:** Zerumena belarria babesten duen substantzia normala da, ez dago kendu beharrik. Belarria, ordea, bai garbitu behar dugu.

JANZKERA ARAUAK: Eskolan jantzi egokiak eta funtzionalak behar dira, haurren mugimendu askea eta autonomia bultzatzeko, bai eta garbia egotea, autozaintza errazteko.

INFEKZIORIK OHIKOENAK	EZ DA ESKOLARA JOANGO	PREBENTZIOA
KONJUNTIBITIS AKUTU KUTSAKORRA	Gutxienez tratamendua hasi eta 2 egun igaro arte.	Eskuen higienea zorrotz zaindu, bai eta gaixo dagoen pertsonak ukitu dituen tresnena.
HARNASKETA-INFEKZIOAK (Hotzeria, katarroa, gripea, faringitisa, laringitisa, bronkitisa, otitisa)	Bere egoera orokorra ez bada ona, sukarra duelako, eztul handia duelako, goiko arnasbideen kongestio handia duelako...	Saihestu zuzenean ukitzea, listu-tanten bidez transmititzen baita (eztula, usin egitea).
MUKOSA ETA LARRUAZALEKO INFEKZIOAK - Inpetigoa (larruazaleko infekzioa) - Mugeta (ahozko muki-mikosia)	Infekzioa tratatu arte. Infekzioak iraun bitartean.	Areagotu ohiko neurri higienikoak. Zaindu ea kasu berririk agertzen den.
BARIZELA	Negela agertu eta 6 edo 7 egun igaro arte, eta lesioak orbantzeko bidean diren bitartean (zarakarra).	Gaixorik dagoen haurra gainerakoengandik bereizi eta isolatu behar da.
ERRUBEOLA	Negela agertu eta 6 egun igaro arte, betiere gaixotasun aktiboaren seinalerik ez bada.	Txerto hirukoitz birikoa jartzea.
ESKARLATINA	Exantema desagertu arte.	Zelatan egon, kasu gehiago sortzen ote diren. Ohiko higiene ardurak areagotu.
ELGORRIA	Negela agertu eta 6 egun igaro arte, betiere gaixotasun aktiboaren seinalerik ez bada.	Txerto hirukoitz birikoa jartzea.
KUKUTXEZTUL	Eztula hasi eta 3 aste igaro arte.	

PAPERAK (PAROTIDITISA)	Hantura desagertu arte.	Txerto hirukoitz birikoa jartzea.
GASTROENTERITIS BIRIKOAK - Okadak - Beherakoak	Beherakoa likidoa den bitartean. Haurrak okadak edo sukarra duen bitartean, edo bere egoera orokorra ona ez den bitartean.	Higiene egokia gorozkiak manipulatzean (fardelak aldatzean eta botatzean, eskuak garbitzean).
SALMONELLOSIA (Infekzio bakterianoa)	Jarraian egindako 2 kopro-kultibotan (gorozki analisiak) emaitza negatiboak izan arte.	Kopro-kultiboak egitea sintomak erakutsi dituzten lagunei (beherakoak, gorakoak, sukarra...).
ZORRIAK (PEDICULOSIAK)	Tratamenduaren biharamunera arte.	Ilea aztertzea eta behatzea. Tratamendua, zorriak edo bartzak izanez gero.
HESTEETAKO PARASITOSIA	Ez du zertan utzi behar eskolara etortzeari, baldin eta haurraren pediatrak agindutako tratamendua betetzen badu eta haurraren hezitzaileari horren berri ematen bazaio.	Osasun-heziketa higiene ohituretan eta, bereziki, eskuen garbiketean.

Haurraren gurasoak/ek edo legezko ordezkariak
 Haur Eskoletako Osasun Arauak errespetatzeko.

konpromisoa hartzen dute Zizur Nagusiko Udala

e(an), 202 ko

aren e(an)

GURASOEN EDO LEGEZKO ORDEZKARIEN IZEN-ABIZENAK ETA SINADURAK		
	1 Gurasoa edo Legezko ordezkaria	2 Gurasoa edo Legezko ordezkaria
Izen-abizenak		
Sinadurak		

Zin egiten dut gurasoak/tutoreak bat gatzela eskabide honekin (**Derrigorrez markatu beharrekoa bi gurasoek sinatu ez badute**).

Gurasoak/tutoreak banantze, dibortzio edo desadostasun egoeran gaudela adierazten dut, eta ebazpen judiziala edo indarra duen dokumentazioa aurkezten dut, esaten duena niri bakarrik dagokidala semearen edo alabaren ikastetxea aukeratzea (**Nahitaezkoa, bi gurasoek ez badute eskabidea sinatu edo aurreko laukitxoak markatu**).